

IBMren prentsa-oharra:

### **Eusko Jaurlaritzak IBM superordenagailu bat erabiliko du klimatologia-ikerketak egiteko**

Lehen aldiz instalatuko da Espainian IBM iDataPlex, energia-eraginkortasun eta prozesu-ahalmen handiko superordenagailua.

Superordenagailu horrek meteorologia- eta klimatologia-arloetan goi-mailako ikerketak egiteko aukera emango du, Euskal Autonomia Erkidegoko zenbait unibertsitaterekin eta teknologia-zentrotarekin batera.

Proiektuaren barruan, ingurumenaren gaineko eragina aztertzeke eta basoak berritzeke proiektuetan elkarlanean aritzeko konpromisoa hartu du IBMk.

Vitoria-Gasteiz. 2009ko otsaila. Eusko Jaurlaritzako Informatika Elkarteak (EJIE) IBMri esleitu dizkio superordenagailu berriaren horniketa, instalazioa, martxan ipintzea eta mantentze-lana. Eusko Jaurlaritzak Euskadiko Meteorologia Zentroaren eta hainbat unibertsitate eta teknologia-zentrotoren eskura jarriko du superordenagailua, klimatologia-ikerketak egin ditzaten.

Eusko Jaurlaritzako superkonputazio-zentroak 11 TeraFLOPetik gorako kalkulu-ahalmena izango du; hau da, segundoan 11 bilioi eragiketa baino gehiago egin ahal izango ditu. Prozesu-ahalmen hori dela-eta, superordenagailuak 48 orduan egingo ditu ohiko ordenagailu batek 114 urtean egingo lituzkeen kalkuluak.

Espainian instalatzen den lehen IBM iDataPlex izango da. Errendimendu handiko superordenagailua da IBM iDataPlex, hamarnaka mila zerbitzariren kalkulu-ahalmena behar duten datu-zentroen eragiketen eraginkortasuna handitzeko diseinatua. Superordenagailu horren hozte-teknologia berritzaileari esker, energiaren %40 aurreztea lortuko da, eta aldi berean, prozesaketa-ahalmena halako bost handitzea.

Superordenagailu horri esker, Euskadiko zientzialariek goi-mailako ikerketak egingo dituzte meteorologiarekin eta klimatologiarekin lotutako hainbat diziplinan, Euskal Autonomia Erkidegoko zenbait unibertsitaterekin eta teknologia-zentrotarekin batera. Hori dela-eta, Espainiako eta mundu osoko ikerketa-proiektuetan parte hartzeke aukera handitu egingo da. Izan ere, IBMren laborategietako profesionalek eta teknologiako adituek ere proiektua martxan ipintzean hartuko dute parte.

### **Ingurumenarekiko arduratsua den proiektua**

Proiektuan, energiaren aldetik merkatuko teknologiarik eraginkorrena erabiliko da, eta ildo horretan, IBMk, proiektuaren barruan, Euskadin ingurumenaren gaineko eragina aztertzeke eta basoak berritzeke proiektuetan laguntzeko konpromisoa hartu du.

“IBMk eskarmentu handia du meteorologia- eta klimatologia-arloetako superkonputazioan. Izan ere, munduan horretarako erabiltzen diren superkonputazio-sistemen %55 IBMrena da”, adierazi du Juan A. Zufiriak, IBMko Espainia, Portugal, Grezia eta Israelerako presidentea. “Beraz, akordio honi esker, Euskadiko ikertzaileek eta meteorologoek azken teknologia erabili ahal izango dute, bai eta IBMk urte hauetan zehar lortutako ezagutza eta aurrerapenak ere, eta horri esker, informazioaren teknologiei ahalik eta onurarik handiena ateratzeko aukera izango dute”.